

# Agur Maixu! (Orixe, Olerkari artzai menditarra)

Nere anaiari- bere ezkontza ondoren

FOR MATXIN LABAYEN

Laixter iru urte Orixek— gure Orixek agurgarria itzalduta zala obe oraindik zerura joan...

Gogoratzen al zerate nere Euskaldun yayoak? Egun beltza izan zan ura egun argia egin arren...

Denbora azkar dioa— azkarregi noski lan nekatzalle— kezka sutsua dunantzat. Iru urte... norik esango zun...

Zein— ondo— zein poliki ikusten det gure Orixek etxeko baratza'n— alki orlegia'n exerita lore gorri ondoan— ameslari— bere irripar bakun galutsaki'n!

Antziñeko jakintzari-filosofua zirudin! Kanpotik— itxuraz— edozein gizona bezela, bañan barrundik ura gizona! Setako gizona noski! Ta bere izketa, ura izketa! Olerkari izketa-abestia!

Garbi garbi ikusten zan txikitatik Euskera iretsi (mamar) egin zula! Jakintsu aundi bat izan arren— beti ezer etzekiela esaten zigun— Munduko jakintsu guztiok olaxe diote! Auxen da lanbidea!

Orixek— eta auxen ez da miraririk txikiena (txikiena)— Olerkari Artzai— Menditarra degu!

Orixek beti gogoa'n izango du bera artzaia izan zala ta bere artzai bur burua'n— mendi galur— ibar zabal orlegi— pago baso lurritsu— ardi talde zuri— mamitsu— ta zakur zintzo oritxka tartea'n jaio zala bere olerki (Poema) Euskaldunak.

Euskaldunak benetan egizko menditar Olerki! Erdia— Orixek sortua— beste erdia Mendiak!

Artzaiak— ixillak izan arren— ixil ixillik egon arren— urrunera begira begaldi utsaki'n— ba dute batzuek noski bere olerkia barru barrua'n. Ta ez ba dute ere— aize— eguzki zeru— irudiak lagun — Jainko Txiki bezela bai azkar sortu!

Ala ere— atzai ta olerkariak ez al dira berdiñak? Zer egiten dute biyok? Ba kantatu abestu irudiaren edertasuna— gizonarena. Eta auxen bera egin zun gure Orixek— ondo oso ondo— ezin obe— abestu irudia— artzaia— baserria— mendi— biza— euskal anima— abestu gozoki bañan sendo sakon Birgilio aundiak bezela! Abestu bai— gizonak arnas egiten duan bezela— txoriak abestu— aizeak txistu— udak orroatu (bramar).

Abesti bizi— argi— sendo bakun bañan xamurra— ezta bezin gozoa— mamia bezin mamitso— Erri baten arnas beroa noski!

Bañan abesti au ara udar arratsalde eder batea'n itzalduta!

Eriotzak bai azkar— txispakiñia'n puskatu lertu! Orixek bai azkar sumatu— olerkari gustiok bezela eriotza— laño illun bat bezela gañean dula— Bañan ez da izutzen— (asustar).

Zergatik izutu? Eriotza olerkari— artistan-tzat ez al da bere Bizitza lillura-garriare'n jairaipen betikoa?

Lamartine'n iltzen ari dan Olerkariak bezela (Au poete mourant) gutxi gora bera ala dio: «Lagunak ba noa— Agur— ba dakizute zer izan dan nere bizia— maitatu— abestu— idaztea— Zertarako negar egin— ain bizi ederra igarota gero? Iltzea ez da ituna— ezer utzirik gabe baizikan— Ta zerbait uzteko— bizia bete egin bear da!»

«Ta badakizute— illobi ixil!— bakun bat bear det— (Lord Byron bezela) Illobi ixil bakunatik anima obe— ariñago zerura! Nere lagunak, lagun gazteak nere lira izoztuta ixil du da... artu zazute zurea. Eta zer poza nere gogoā igarotzen ba da mundu ontatik bestera— zure itunpen opaldu otsaki'n!» (itunpen opaldu— sagrado concierto).

Eriotza, bai ta gero— Euskaldunak orain bai bukatu dala egiz— Azken atal-buru kapituloa— eortzi (entierro) ixil bakun bat. Artzai jaiō — artzai bizi— artzai il! Ara berriz gure Olerkari biotz aundikoa berriz irudia'n — arto orlegi— baserri txuri ta mendi gorri tartea'n! Antzoki paregabea benetan! Aidea'n — adarreta'n— txoritxoak bere abesti gozoeki'n bai azken agurra eman bere Aitatxoril!

Agur Orixe olerkari— irudi olerkari—!

«Euskaldunak bai ederra benetan... Mikel ta Garazi begiak zorroztuaz... Pestaburu— Gaztaiñaro Axurdaro— Artajorra— Amonare'n eriotza— Denok Bat! Olentzaro.

Bañan «Euskaldunak» ez da ori bakarrik. «Eusgaldunak» (Mistrale'n Proventza bezela— Mistral Orixe'n olerkari kutuna) Euskalerra gutzia— da.

Euskaldun ikuzkizuna (Paisaje) bere itxaso ta medieki'n— zergatik ez Itxasmen-di? Euskaldun erri zar iaioa bere izkuntza paregabe ta kultura zoragarriareki'n bere itxaropen ta kezkarreki'n da.

Orixe, iltzera dijoan erri baten olerkari aunli azkena al da?

Utikan gogamen (pensamiento) txoro ori!

Orain uxatu zazute Euskera eskoletik! Euskalerra beti biziko da «Euskaldunak» Poema'n— Provenza Mireyo'n bezela! Orixe aundia da «Euskaldunagatik» bañan aundiagoa bere jakinai egarri izukarriagatik!

Gizona berez jakinaia da— emen da an— orain eta beti— ta bere iritxia jakinai ori betetzea! Jakinaia da animare'n janaria! Irakurri— irakurri— esaten digu guri gazteeri Orixe— Gure gazteak gutxi irakurtzen dutela garbi ikusi gure Orixe.

Askatasun otza asko dabil gure aboeta'n... bai ta ere mundu guztia'n.

Askatasun ori irixteko— bai ta ere alkartasuna— bide bakarra dago:

Kultura.—Kultura ez duen erriak gaizki dijoa nere ustez!

Erri bat izan zan ez! Erri bat da! Erria— ez pataska (Masa).

Orretarako bide bakar bat degu': EUSKERA— Euskal kultura!

Mendia'n alkartuta dauden zuaitzak zaallak dira botatzen.

Gu ere alkartuta balin ba gaude beituageak izango gera (invencibles).

Alkartasun ori Kulturak emango digo— jakintzak!

Alkartasun ta askatasuna— zuaitzak ez al dira mendia'n libro bizi?